

Bezeroekin harremana

Oso garrantzitsua da bezeroa gurekin gustura sentitzea, gure enpresarekin alokatzen jarrai dezan eta guri publizitate ona emateko. Hori dela eta, bezeroak gurekin komunikazioari dagokionez erraztasun ugari izan ditzan saiatzen gara (baita beste arlo batzuetan ere). Horretarako, telefono bidez, webgune bidez edota emailen bidez kontaktatuko dezakete, bertan ordezkari erreal batekin hitz egiteko. Honetaz gain, bulego bat izango dugu eta bertan gela bakoitzerako beharrezko informazioa eman ahal izango diegu eta, nahi izanez gero, aurrez aurre aurkituko ginateke, saltzen ari garen etxea erakusteko eta edozein zalantza edo galderari erantzuteko.

GURE WEBGUNEA → <https://live-in.jimdosite.com/>



Jabearekin harremana

Harreman estua eta epe luzekoa izango dugu alokatuko dugun etxearen jabearekin. Agian, pertsona horrek gure ideia gustoko badu eta etxe gehiago baditu, hainbat etxe itxi ahal dizkigu gure zerbitzua eskaintzeko. Kasu honetan harreman estu bat sortuko genuke pertsona honekin, guri komeni zaigulako etorkizunean gure negozioa handitzeko.

Langileen arteko harremana

Aipatu dugunez, besteekin mantentzen dugun harremana oso garrantzitsua da, eta gauza bera gertatzen da enpresako langileekin. Garrantzitsua da giro ona egotea hobeto eta azkarrago lan egin ahal izateko.

